



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE GIPUZKOA

IKASLE BERRIENTZAKO GIDA

2025-2026 ikasturtea

Donostia



AURKIBIDEA

1. ESKOLA	5
1.1. Zuzendariaren agurra.....	5
1.2. Antolakuntza.....	6
1.3. Espazioaren antolaketa.....	8
1.4. Ikasleentzako zerbitzuak.....	9
1.5. Larrialdietarako plana.....	14
1.6. Eskolaren barne-funtzionamenduari buruzko arauak	15
1.7. Azterketen garapenari buruzko araudia.....	17
2. TITULAZIOAK	18
2.1. Titulazioen helburuak.....	18
2.2. Ikasketa-planak.....	21
3. IKASTURTEKO PROGRAMAZIOA	28
3.1. 2025-2026 eskola-egutegia.....	28
3.2. Ordu-tegiak.....	28
4. TUTORETZA-PLANAK	29
4.1. Berdinen arteko tutoretza-plana.....	29
4.2. Iraskasle-ikasle tutoretza-plana	29
4.3. Goi-mailako eta errendimendu handiko unibertsitate-kirolarientzako tutoretza-plana.....	29
5. MUGIKORTASUN- PROGRAMAK	30
5.1. Nazioarteko titulazio bikoitzak.....	31
6. ENPRESA PRAKTIKAK	32



1. ESKOLA

1.1. ZUZENDARIAREN AGURRA

Ikasle estimatuok, ongi etorri Euskal Herriko Unibertsitatearen Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolara!

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola da Ingeniaritza alorrean Gipuzkoan lehenengoa, eta zuek hemen egotea ohore bat da. Ilusio handiz hartzen zaituztegu, jakitun izanik datozen urteek arrastoa utziko dizuetela, bai profesionalki eta baita pertsonalki ere.

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak, Donostian, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako esparrura egokitutako bost gradu eskaintzen ditu: hiru industria-ingeniaritzan (Elektrizitatea, Industria Elektronikak eta Automatika, eta Mekanika) eta beste bi eraikuntza arloan (Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura Teknikoa). Horretaz gain, bi gradu bikoitz eskaintzen dira: industria arloan, Gipuzkoa osoko sarbide notarik altuena duen Ingeniaritza Mekanikoko eta Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza, eta eraikuntza arloan, Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitza. Horiek guztiak lanbide arautuen jarduerarako gaitzen dute, eta Eskolak erantzukizuna du, gizartearen aurrean, ikasketa-planetan agindutako gaitasunak eskuratzen dituzuela egiaztatzeko. Gainera, hiru Unibertsitate Master ditugu, eta hiruetan enpresa-egonaldiak burutzen dira.

Unibertsitatean bitituko duzuen heziketa-prozesua sakona eta esperientzia berriz beterikoa izango da, eta irakasleok prozesu horretan gidari eta bidelagun izango gaituzue. Beharrezkoak diren kontzeptu teorikoak ikasteaz gain, ezagutzan sakonduko duzue gure laborategi anitzetan egingo dituzuen aplikazio praktikoen bidez. Gure zeregina zuek trebatzea izango da, betiere profesionaltasun eta errespetuz. Bideratze horretan garrantzi berezia dute enpresetako praktikek, gradu amaierako lanek eta ikasketen nazioartekotzeak. Horien berme dira Eskolak gure lurraldeko enpresek in eta atzerriko unibertsitate ugariekin dituen harreman estuak.

Eskola honetako gradudun bezala laneratzen zaretenean, enpresen aldetik eskaera handia dagoela ikusiko duzue. Horietan, zuen gaitasun teknikoari esker, oraingo zein etorkizuneko erronkei, hala nola jasangarritasuna, gizarte erantzukizuna edo digitalizazioa, aurre egiteko ekarpen eraginkorrek egingo dituzue.

Amaitzeko, urte hauek ahal den gehien aprobetxatu, ez bakarrik heziketa sendo bat lortzeko eta lagun berriak egiteko, baita ere unibertsitate bizitzan parte hartzeko eta aktiboki kolaboratzeko. Gaurtik aurrera Eskolaren zati zarete, eta zuek bertan arrastoa uztea nahiko genuke, Eskolak zuen barrenean utziko duen bezalaxe. Zinez espero dut, etorkizunean, beti zuen etxe izaten jarraituko duela.

EMAN TA ZABAL ZAZU
Iker Laskurain Iturbe Dk.
Zuzendaria

1.2. ANTOLAKUNTZA

1.2.1. Gobernu-organismoak

Eskolaren agintaritza eta kudeaketa kide anitzeko eta kide bakarreko zenbait organok dituzte.

Kide anitzeko gobernu-organismoak.

- Eskolako Batzarra
- Kalitate Batzordea
- Antolakuntza Akademikoko Batzordea
- Ikasmailetako Batzordeak
- Titulazioko Batzordea
- Euskara Batzordea
- Berdintasunerako Batzordea

Kide bakarreko gobernu-organismoak.

Zuzendaritza Taldea hauek osatzen dute:

Kargua	Izen-abizenak	Telefonoa	Posta elektronikoa
Zuzendaria	Iker Laskurain Iturbe dk.	943 01 7268	gie.zuzendaria@ehu.eus
Idazkari Akademikoa eta Euskara	Moises Odriozola Maritorena dk.	943 01 7269	gie.akademia-idazkaria@ehu.eus
Antolakuntza Akademikoko Zuzendariordea	Ane Sarasola Iñiguez dk.	943 01 7272	gie.akademia-antolakuntza@ehu.eus
Akreditazio Zuzendariordea eta Titulazioen Koordinazioa	Nagore Gabilondo Lopez dk.	943 01 7274	gie.akreditazioa@ehu.eus
Kanpoko Harremanetarako Zuzendariordea	Mikel Iturrate Mendieta dk.	943 01 7271	gie.kanpo-harremanak@ehu.eus
Nazioarteko Harremanetako Zuzendariordea	Ainara Saralegi Otamendi dk.	943 01 7270	gie-coord.international@ehu.eus
Gizarte Erantzukizunaren eta Ikasleen Zuzendariordea	Gorka Alberro Eguilegor	943 01 7273	gie.ikasleria.zuzorde@ehu.eus
Administrazio Burua	Ana San Martín Azofra	943 01 7142	gie.administrazio.burua@ehu.eus
Zuzendariaren Idazkaria	Mariló Plazaola Compañ	943 01 7267	gie.zuzendaritza@ehu.eus

1.2.2. Irakaskuntza-koordinazioa

Sailletako atalen koordinatzaileak

Irakaskuntza-egitura sailek ezartzen dute, nagusiki. Horien ardua da jakintza arlo bateko edo batzuetako irakasgaiak koordinatzea eta irakastea, UPV/EHUko irakaskuntzako programaren eta ikastegietako antolakuntzaren arabera. Arlo bakoitzeko espezialitateetako irakasle eta ikertzaile guztiak biltzen dituzte.

Ikasmailletako koordinatzaileak

Ikasmailletako koordinatzaileak irakaskuntza-programen koordinazioaz eta dagokien graduko maila guztietako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapenaz arduratzen diren irakasleak dira. Maila bakoitzeko irakasleekin harremanetan daude, etengabe, eta ikasleen iradokizunak jasotzen dituzte mailletako ordezkarien bitartez.

Titulu-koordinatzaileak

Titulu-koordinatzailearen ardua izango da irakasgaien, materien eta moduluen arteko koordinazio bertikala bermatzea, helburuei, edukiei, metodologiari eta ebaluazioari dagokionez. Lan horren xedea hutsuneak eta bikoiztasunak saihestea da. Hortaz, ikasmailletako koordinazio-taldeen, eta horien eta Eskolako zuzendaritzaren arteko bitartekari gisa arituko da.

1.2.3. Administrazio-egitura

Administrazio-egitura eta zerbitzuetako lanez arduratzen diren Eskolako langileak (TKZEL) daude atal honetan. Lan horiek ezinbestekoak dira irakaskuntzak eta ikerkuntzak behar bezala funtziona dezaten.

Akademia Kudeaketa (Idazkaritza) irakaskuntzarekin zerikusia duten gai akademikoei lotutako lanari esaten zaio: matrikulak, ikasketen espedienteak, ikasleen kudeaketa, irakasgai-aldaketak, talde-aldaketak, baliozkotzeak, kredituen amortizazioa, etab.

1.2.4. Ikasleen ordezkariak

Ikasle kontseilua

Ikasle Kontseiluaren eginkizunak hauek dira, besteak beste: ikasleen ordezkariak izatea Eskolako zuzendaritzaren aurrean, unibertsitatearen aurrean, eta kontseiluak berak proposatzen dituen ekintzak gauzatzea (ikasketa amaierako bidaia, kultur ekintzak, eta abar).

Kokalekua: Lehenengo solairua.

Telefonoa: 943 01 7153

Emaila: gje.zik@ehu.eus

Instagram: gje_ik

Ikasleek Eskolako Batzarrean eta bertan onartutako lan-batzordeetan dituzte ordezkariak.


Ikasmailletako ordezkariak

Ordezkariak izendatzeko, hautaketa-prozesu bat egiten da urtero. Ordezkariak hautatzeko prozesua Eskolako zuzendaritzak antolatzen du.

Eginkizun nagusiak hauek dira:

- Irakasleei nahiz zuzendaritzari, ikasmailetan egon daitezkeen arazoan berri ematea (kezkak, ekimenak eta iradokizunak).
- Irakaskuntza-batzordeetan parte hartzea.

1.3. ESPAZIOAREN ANTOLAKETA



1.4. IKASLEENTZAKO ZERBITZUAK

1.4.1. Internet

1.4.1.1. WEB orria

Ikasleen prestakuntzan zehar informazio interesgarria eskainiko duen tresna da Eskolaren web orria. Ikasturte osoan eguneratuko dugu informazioa.

www.ehu.es/gipuzkoako-ingeniaritza-eskola

ESCUOLA DE INGENIERÍA DE GIPUZKOA

Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa

La Escuela

Información Práctica

Grados

Posgrados

Otros estudios universitarios

Movilidad

Relación con la empresa

Investigación

Intranet

ESTUDIAR EN LA EIG/GIE

Somos un centro plurilingüe con una cultura de innovación, responsabilidad social, esfuerzo e integridad. Nuestros titulados y tituladas han sido y continúan siendo fundamentales para el desarrollo del tejido social y productivo gipuzkoano. Nuestras puertas están abiertas, ¿ong etorria!

Información para el futuro alumnado →

6+2
Grados y Dobles Grados →

11
Aulas Universidad-empresa-sociedad →

8
Dobles Titulaciones Internacionales →

Outgoing/ Incoming

Información para el alumnado

Prácticas, TFG/TFM, empleo

1.4.1.2. Posta elektronikoa

Matrikula egitean, helbide elektronikoa bana ematen zaie ikasleei. Zerbitzu hori funtsezkoa da Eskolarekin komunikatzeko, informazio ofizial guztia bide hori erabilia jakinaraziko baitugu. Web bidez posta elektronikora sartzeko hasi saioa hurrengo helbidean: outlook.office.com

Unibertsitatean aurreinskripzioa egiteko (SARBIDE) erabilitako gakoak (LDAP erabiltzailea) beharko dira:

- Erabiltzaile-izena
- Pasahitza

M365 lankidetzaren buruzko informazioa:

www.ehu.es/eu/group/gipuzkoako-ingeniaritza-eskola/ikasle-posta-elektronikoa

1.4.1.3. WiFi zerbitzua

Eskolan, ordenagailu eramangarriaren bidez, UPV/EHUren haririk gabeko sarera sartu eta sare horrek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabil daitezke: Internet, liburutegia, idazkaritza birtuala, posta elektronikoa, etab.

Eskolan, WiFi guneak dira 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. solairuetan ikasleek egoteko dituzten guneak eta kafetegia.

Ordenagailu eramangarria UPV/EHUko sarera konektatzeko, beharrezkoak dira:

- Ekipo eramangarri bat. Sistema eragilea Windows, Linux, Apple Mac edo iOS izan daiteke.
- WiFi txartel bat
- Interneterako sarreraren konfigurazioa

Interneterako sarrera konfiguratzeko, instalazio-gida batzuk kontsulta daitezke [www.ehu.eus/wifi orrian](http://www.ehu.eus/wifi/orrian).

Gainera, zerbitzuaren erabilerari, instalazioari nahiz konfigurazioari buruzko zalantzarik izanez gero, Erabiltzailearen Arretarako Gunean (945 01 44 00 telefonoa) argitu daiteke.

1.4.2. GAUR: Online idazkaritza

GAUR sisteman, ikasleak unibertsitateko ibilbidean dituen etapa guztiak kudeatzen dira. Funtsezkoa da ikasleak GAUR programa ezagutzea; izan ere, oinarriko tresna da administrazio-izapideen kudeaketa informatikorako eta ikasleen bizitza akademikoaren datuen kontsultarako.

Matrikulatzeko, titulua eskatzeko, notak edo espediente akademikoa kontsultatzeko eta halako izapideetarako leihatila birtual bat da.

Unibertsitatean aurreinskripzioa egiteko ikasleek duten identifikatzaile baten bidez (LDAP erabiltzailea), leihatila horretatik abiatuta zerbitzuetarako sarbidea dute, eta erabiltzaile horrek bere ikasketa-prozesu osorako balioko dio. "Ikasleak" atalean sartuz edo <http://gestion.ehu.eus/gaur> -en aurkituko duen ikonoan klikatuz sar daitezke Zerbitzuan.

UPV/EHUK gailu mugikorretarako aplikazio bat sortu du bere ikasleentzat. GAUR izeneko app horren bidez, abisu bat bidaltzen zaio ikasleari matrikulatu den irakasgai batean nota jartzen den bakoitzean. Halaber, matrikula, espedientea eta tutoretza-orduak kontsultatu ahal dira, besteak beste. GAUR doako app-a deskargatu ahal da ikasleen gailu mugikorrei dagokien aplikazio dendetik, Android zein iOS sistema eragilea duten gailuentzat.

Aplikazioa instalatu eta zabaldutakoan, unibertsitateak bere plataforma informatikoetara sartzeko ikasle guztiari ematen dizkien identifikazio-datuak (LDAP erabiltzailea) sartu behar dira.

1.4.3. Irakaskuntza plataforma digitala: eGELA

Eskola honetako irakasleek eGELA plataforma erabiltzen dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako. Plataforma honetan sartzeko ere aipatutako LDAP erabiltzailea erabili behar da. Helbidea: <https://egela.ehu.eus/>

1.4.4. Idazkaritza

Eskolako beheko solairuan kokatuta dago. Bertan izapide administratibo guztiak egin daitezke. Aurretiko hitzordua eskatu beharra dago:



Ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era Ostiraletan, udako lanaldi jarraituan, eta Aste Santuko eta Gabonetako txandetan 09:00etatik 13:00etara.

Telefonoak:

943 01 7135 | 943 01 7138

Posta elektronikoa:

gie.idazkaritza@ehu.eus

1.4.5. Liburutegia

Gipuzkoako Campuseko Liburutegia Carlos Santamaria Zentroan kokatuta dago. Gipuzkoako Campuseko ikastetxeen fondo guztiak integratu dira bertan (375.000 liburu, 4.500 aldizkari- titulu baino gehiago, tesiak, proiektuak, CD-ROMak, DVDak, etab.).



Carlos Santamaria Zentroak hiru sektore nagusi ditu:

Ikasketa Baliabideen Zerbitzua (beheko solairua). Batez ere, ikasleentzako ikasteko bibliografiara bideratuta dago, eta arkitektura eta eraikuntzarako bibliografiaren zati handi bat biltzen du. Mediateka eta informazio elektronikoko baliabideen gelak ere bertan kokatu dira, hainbat ordenagailu eta ikus-entzunezko postuz hornituta.

Ikerketa Baliabideen Zerbitzua (lehenengo solairua). Bertan, espezializaturiko bibliografia biltzen da (liburu, aldizkari eta bestelako dokumentuak). Sektore hau, era berean, hiru ataletan zatitzen da: Humanitateak (psikologia, filosofia, heziketa), Gizarte eta Zuzenbide Zientziak (zuzenbidea, ekonomia eta enpresa-ikasketak) eta Zientzia eta Teknologia (zientziak orokorrean, kimika, informatika eta ingeniari-tza). Mailegatu ahal izateko beharrezkoa da ikasle txartela erabiltzea.

Prozesu Teknikoen Zerbitzua. Zuzendaritza eta barne-lanentzako guneak daude bertan (eskuratzeko- prozesua, dokumentuen katalogazioa, etab).

Oro har, liburutegiak 1.100 irakurketa-toki baino gehiago ditu eta, bestelako guneen artean, besteak beste, talde-lanentzako gelak, informatikako lantokiak, ikerketa-kabinak, proiektzio- gelak edo erabiltzaileen heziketarako gelak daude.

1.4.6. Ikasketa-gelak, informatika-gelak eta jangela

Eskolak, beheko solairuan ikasketa-gela bat du 120 pertsonentzako lekuarekin. Gainera, lan egiteko mahaiak daude solairu guztietako korridoreetan banatuta. 1. solairuan ordenagailu-gela bat dago ikasleek erabili ahal izateko.

6. solairuan ikasleen jangela dago. Jangelaren ordutegia 12:30etik 15:00etara da. Ordutegi honetatik kanpo, ikasketa-gela gisa ere erabili daiteke.

1.4.7. Kafetegia

Ordutegia: 08:00etatik 17:00etara, astelehenetik ostiralera.

Kokalekua: beheko solairua

Telefona: 652 740 980

1.4.8. Edari hotz, bero eta produktu solidoen makinak

2. solairuan: kafe-makina eta iturria.

6. solairuan, igogailuen parean: kafe-makina, elikagaiak, edari hotzak eta iturria.

1.4.9. Armairu-zerbitzua

Eskolan armairuak daude Eskolako ikasleek bertan dauden bitartean norberaren gauzak gordetzeko. Armairu-zerbitzua erabiltzeko interesa duen ikasleak izena eman behar du erabiltzaile gisa hurrengo estekan: www.ehu.eus/es/web/gipuzkoako-ingeniaritza-eskola/armairuak, ikasturte hasieran ezarriko diren epeetan, web-guneko formulario bat beteta. Izena ematerakoan, zerbaki bat esleituko zaio akademia-ikasturte osorako.



1.4.10. Gipuzkoako Campuseko zerbitzuak

Gipuzkoako Campusak ikasleei hainbat zerbitzu eskaintzen die. Azpimarratzekoak dira:

- **Ikasleentzako Argibide Zerbitzua**, Ignacio M^a Barriola eraikinean kokatua. Telefonoa: 943 01 8256; www.ehu.eus/iaz
- **Ezgaitasunak Ditutzen Pertsonentzako Zerbitzua**, eraikin berean (Ignacio M^a Barriola eraikina); Telefonoa: 943 018137/5184; www.ehu.eus/discapacidad
- **Arreta Psikologikorako Zerbitzua**, Ignacio M^a Barriola eraikinean kokatua. Telefonoa: 943 01 8375/8309; www.ehu.eus/servicio-atencion-psicologica
- **Gipuzkoako Campuseko Kirol Zerbitzua**, Manuel Lardizabal Pasealekua, 2 – Behea Zuzenbide Fakultatea, Telefonoa: 943 01 8176/8159; www.ehu.eus/kirolak-gipuzkoa

1.5. LARRIALDIETARAKO PLANA


Eskolako larrialdietarako planak, beharrezkoa izanik, Zentroa nola hustu behar den esaten digu. Ikasturtean zehar bi huste-simulazio egingo ditugu guztiok jakin dezagun nola jokatu behar dugun eta, aldi berean, izan litezkeen antolatze-akatsak detektatzeko. Hona hemen jarraitu behar dituzuen arauak.

Eskola hustea

Alarma orokorra badago, pertsona GUZTIEK eraikina hustu behar dute modu ordenatuan, hurrengo arauetara jarraiki:


- Egon lasai, eta EZ EGIN KORRIKA.
- Irten eraikinetik hurbilen daukazu ebakuazio-eskaileratik. Dauden lau eskailerak hurrengo planoan agertzen dira, LABORATEGIAK, BULEGOAK, TABERNA eta NAGUSIA izenekin. Behe-solairuko ate guztiak automatikoki zabaltzen dira, alarma aktibatutakoan.
- Ikasgela edo laborategietan bazaude, jarraitu irakaslearen edo zerbitzuko arduradunaren oharrei.
- Ez erabili igogailurik inoiz.
- Ez joan atzerantz, eta ez saiatu zure gauzak hartzen.
- Zaurituta egoteagatik edo ezintasunen bat izateagatik norbaitek eraikinetik irteteko arazoak baditu, lagundu.

Larrialdietarako irteerak



Bilgunea

Eskola hustu ondoren, pertsona GUZTIAK bilgunean (Julio Caro Baroja plazan) elkartu, eta barruan beraiekin zeuden pertsonak kanpoaldean daudela egiaztatu beharko dute. Norbait falta dela seguru bazaude, esan irakasleren bati edo Eskolako langileei.



1.6. ESKOLAREN BARNE-FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Donostiako Egoitzan, jokamolde-gidalerroei buruzko araudi bat osatu dugu, unibertsitateko kide izateak dakartzan oinarritzko printzipioetatik abiatuta. Irakaskuntza/ikaskuntza-prozesua, hain zuzen, ordena- eta egonkortasun-giroan egin behar da. Ondorioz, printzipio horiek giza tratuari, ikastegiko jarrera eta presentziari eta konpromisoak betetzeari egiten die erreferentzia. Helburu hori aintzat hartuta, arauak azaldu, eta horiek errespetatu ezean izango diren zigorrak aipatuko ditugu.



1.6.1. Ikastegian izan beharreko jarrera eta presentzia

Eskolako bizikidetzeta errazteko, guztiok zaindu behar ditugu bertako altzariak eta instalazioak, beste pertsona batzuekiko errespetua izan behar dugu esparru guztietan, eta Eskolak ezartzen dituen funtzionamendu-arauak bete behar ditugu.

Zehazki, ikasgelan edo irakaskuntzako beste espazio batzuetan honako hau eskatzen da:

- Puntualtasuna eta isiltasuna klasean. Oro har, eskolen ordutegia errespetatu behar da. Justifikatutako atzerapen bat, edo lehenago irten beharra, irakasleari azaldu beharko zaio.
- Geletan mugikorrak edo bestelako aparatu elektronikoak deskonektatu beharko dira, irakasleak kontrakoa eskatzen ez duen bitartean.
- Edaririk eta janaririk ez kontsumitzea.
- Irakasleen oharrei jarraitu beharko zaie uneoro. Ikasleek behar bezala jokatzeko ez badute, irakasleak ikasgelatik bota ahal izango ditu.

1.6.2. Konpromisoak betetzea

- Bai ikasleek, baita irakasleek ere, euren titulazioko Irakaskuntza Proiektua errespetatu beharko dute.
- Proposatutako ariketak eta lanak adierazitako epean aurkeztu beharko dituzte ikasleek.
- Proposatutako ariketak eta lanak, eta egindako ebaluazio-kontrolak, adierazitako epeetan zuzendu beharko dituzte irakasleek.
- Emandako argibideen arabera, Eskolan proposatutako jardueretan eta ariketetan parte hartu beharko dute ikasleek.
- Ebaluazioa egin ahal izateko, programazioan aurreikusitako kontrol eta proba objektibo guztiak egin beharko dituzte irakasleek.
- Proposatutako zeregin eta lanetan, ezin daiteke kopiatu, plagiatu edo tranparik egin.

1.6.3. Neurriak eta zigorrak

Aurretik ezarritakoa ez betetzea dakarten gertakari eta jarrerak, idatziz jasota geratuko direnak, Eskolak eskaintzen dituen onura batzuk galtzea ekar dezakete. Onura horiek honako hauek dira:

- Enpresan praktikak egiteko aukera izatea.
- Mugikortasun-programetan parte hartzea.
- Titulazioko aparteko sarirako proposatua izatea.
- Eskolak antolatutako beste jarduera osagarri batzuetan parte hartzea (MotoStudent, lehiaketak, tutoretza-programak...).

Irakasleen portaerarekin edo eskolara edo tutoretzetara baimenik edo arrazoi justifikaturik gabe ez joatearekin lotutako edozein kexa ikastetxeko zuzendaritza-taldeari jakinarazi ahal izango zaio, eta Ikasleen Kontseiluaren bitartez bideratu ahal izango da, ikaslearen anonimotasuna bermatuz.



1.7 AZTERKETEN GARAPENARI BURUZKO ARAUDIA

Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegian honako hau dago jasota: "Ebaluazio probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango dio identifikazioa bertaratutako ikasleari, eta ikasleak erakutsi egin beharko du ikaslearen txartela, nortasun agiri nazionala, pasaportearen edo ikasgelako zaintzailearen edo probako begiralearen iritziz akreditaziorako baliagarri izan daitekeen beste edozein agiri." Eta artikuluko bereko beste pasarte batean: "Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspenso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio."


Honenbestez, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Donostiako Egoitzan honako hau ezarri dugu:

1. Ebaluazio ofizialeko proba bat egiten ari dela, ikasle bakoitzak identifikazio-dokumenturen bat eduki beharko du azterketa-mahaiaren gainean.
2. Azterketa-mahaian, azterketa egiteko beharrezkotzat jotako eta baimendutako tresnak baino ez dira edukiko. Horregatik, irakasleak nahikoa aurrerapenez abisatu beharko die ikasleei probara zer material ekarri behar duten.
3. Azterketa hasi ondoren, ikasleek ezin izango dute materiala elkarren artean aldatu. Ikasle bakoitzaren erantzukizuna izango da bere materiala erabiltzeko egoera egokian edukitzea.
4. Ikasleek ezin izango dute telefono mugikorra piztuta eduki azterketaren esparruan, ezta beste edozein gailu elektronikoko ere, kalkulagailu estandarra izan ezik. Telefono mugikorra ezin da kalkulagailu edota erloju gisa erabili.
5. Ikasleak inola ere ezin izango du harremanetan jarri aretoa zaintzen ari den irakasleaz bestelako ezin pertsonarekin.

2. TITULAZIOAK

2.1. TITULAZIOEN HELBURUAK


INGENIARITZA ELEKTRIKOKO GRADUA



Gure eguneroko ekintza guztiek, eta bereziki prozesu industrialek, energia elektrikoa behar dute bere makinak elikatzeko eta kontrolatzeko. Eredu energetikoak egun bizi duen trantsizio egoeran, ingeniari-tza elektrikoko formakuntza gakoa da energia berriztagarriak, sare adimendunak eta mugikortasun elektrikoa garatzeko.

Gradu honetan, goi- eta behe-tentsioko sistema elektrikoetan espezializatuko zara, makina elektrikoaren diseinu eta kontrolen formazioa jasoko duzu eta sorkuntza sistema tradizional eta berriztagarrietan sakonduko duzu, hori guztia ekipamendu aurreratuekin hornitutako laborategiak erabiliz.

INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZAKO GRADUA



Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Graduak gure herriko sektore estrategiko gehienetan presentzia eta aplikazioa du. Gure inguruan eragin handia duten arloetan funtsezko teknologia da: makina-erreminta, automobilgintza, aeronautika, robotika, mikroelektronika eta, oro har, Industry 4.0ko aurrerapenekin loturiko eremuetan.

Gai izango zara zirkuitu elektronikoak diseinatzeko, ekoizpen-prozesuen automatizazioa diseinatu eta garatzeko, instrumentazio elektronikoak diseinatzeko, eta industria prozesuetako kontrol-sistemak aztertu eta gauzatzeko.


INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA



Ingeniaritza Mekanikoko Gradua makina eta gailu mekanikoak, industria-egiturak eta instalazioak nola diseinatu, eraiki, instalatu eta abian jartzeko gaitasuna emango dizu; esaterako, jasotze eta garraio makinak, makina-erreminta, energia-instalazioak, ekoizpen-prozesuak, etab.

Ingeniaritza Mekanikoaren xede nagusia makinak, motorrak, mekanismoak eta sistema mekanikoak diseinatzea da. Beraz, lotura handia du industria alorreko berrikuntzarekin. Industria ingeniartzaren arloan oro har, eta ingeniartza mekanikoarenean bereziki, proiektu teknikoak planteatu, landu, zuzendu, exekutatuta eta ustiatzea du helburu.

GRADU BIKOITZA: INGENIARITZA MEKANIKOA + INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA



Mekanikaren xede nagusia da makinak, motorrak, mekanismoak eta sistema mekanikoak diseinatzea eta, beraz, lotura handia du industria alorreko berrikuntzarekin. Bestalde, sistema hauek azkarragoak, seguruagoak eta eraginkorragoak izateko kontrola eta automatizazioa, Industria Elektronikaren eta Automatikaren ingeniartzaren alorrari dagokio.

Industria 4.0 deritzonaren paradigma berriak halako profesionalak behar ditu Industria alorreko berrikuntzan.

Profil honetako tituludunak behar dituzten puntako enpresa askorekin lankidetzan dihardugu. Horieta egingo dituzu zure formakuntzako praktikak eta gradu-amaierako lana, aukeratu zaituen enpresak proposatutako proiektu integral baten barruan.


ARKITEKTURA TEKNIKOKO GRADUA



Arkitektura Teknikoko Graduan eraikuntzaren arloan profesional bilakatuko zaituen trebakuntza jasoko duzu: proiektuak idatzi, eraikuntza-lanak gidatu edo zuzendu, prozesuen eta berauen kontratazioaren kudeaketa ekonomikoa gauzatu, kontrol tekniko eta ekonomikoa eraman, likidazioak eta egiaztagiriak egin, segurtasunaz eta arriskuen prebentzioaz arduratu, materialen kalitate-kontrola gauzatu, etab.

Konpetentzia teknikoek gain, graduatutako ikasleak beste era bateko gaitasunak ere jasotzen ditu, besteak beste, komunikatzeko, taldean lan egiteko, arazoei iniziatibaz eta sormenarekin aurre egiteko erabilgarriak izango zaizkionak.

INGENIARITZA ZIBILEKO GRADUA



Titulu honen helburua ingeniarietza honen jardunbide-alor zabalari egokitutako trebakuntza teknikoa ematea da. Gerora, herri- lanetako proiektuetan egin ahal izango dute lan, egitura metalikoko zein hormigoi armatuko eraikuntzari buruzko azterlanak oinarri hartuta.

Bestalde, arlo guzti hauen ardura ere izan dezakete: lurralde antolamenduaren araberako garraioa eta beronen azpiegiturak eta baita hiri-plangintza eta hiri- zerbitzuak ere, hedapen osoan (uraren zikloa, instalazioak eta hiri-altzariak, hondakinen kudeaketa, hornidura-sareak eta komunikazioak).

GRADU BIKOITZA: INGENIARITZA ZIBILA + ARKITEKTURA TEKNIKOA



Eraikuntza alorrean gure habitata hobetzeko, jasagarritasun, efizientzia energetiko eta segurtasun irizpideak erabiltzeko gai diren aituak behar dira.

Ingeniarietza Zibil eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitzak bi alorrek profesionalki aritzeko prestakuntza emango dizu. Honela, eraikuntzarekin lotutako alderdi guztiei, bai eraikingintza nahiz obra publikoan, biak izanik sektore estrategikoak gizarte aurreratu baten garapenerako, ikuspegi integral batekin konponbideak emateko gaitasunak lortuko dituzu.

2.2. IKASKETA-PLANAK

2.2.1. Ingeniaritza Elektrikoko Gradua

Irakasgaiak		ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu		
	Adierazpen Grafikoa	9
	Algebra	6
	Kalkulua	12
1.	Informatikaren Oinarriak	6
	Ingeniaritzako Metodo Estatistikoak	6
	Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	12
	Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak	9
BIGARREN MAILA 60 kreditu		
	Enpresen Administrazioa eta Ekonomia	6
	Automatismoak eta Kontrola	6
	Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak	6
	Fluidoan Mekanika	6
2.	Industria Elektronika	6
	Ingeniaritza Termikoa	6
	Materialen Zientzia	6
	Mekanika Aplikatua	9
	Teknologia Elektrikoaren Oinarriak	9
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Behe Tentsioko eta Tentsio Ertaineko Instalazioak	9
	Erregulazio Automatikoa	6
	Goi Tentsioko Instalazioak	6
3.	Linea Elektrikoak eta Potentziako Sistema Elektrikoak	9
	Makina Elektrikoak	9
	Makinen Kontrola eta Eragingailu Elektrikoak	6
	Potentzia Elektronika	6
	Zentral Elektrikoak eta Energia Berriztagarriak	9
LAUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Ekoizpenaren Antolakuntza	6
	Ingurumen Teknologia	6
4.	Kudeaketa Integratuko Sistemak	6
	Proiektuen Kudeaketa	6
	Hautazkoak	24
	Gradu Amaierako Lana	12

2.2.2. Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua

	Irakasgaiak	ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu		
	Adierazpen Grafikoa	9
	Algebra	6
	Kalkulua	12
1.	Informatikaren Oinarriak	6
	Ingeniaritzako Metodo Estatistikoak	6
	Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	12
	Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak	9
BIGARREN MAILA 60 kreditu		
	Enpresen Administrazioa eta Ekonomia	6
	Automatismoak eta Kontrola	6
	Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak	9
	Fluidoaren Mekanika	6
2.	Industria Elektronika	6
	Ingeniaritza Termikoa	9
	Materialen Zientzia	6
	Mekanika Aplikatua	6
	Teknologia Elektrikoaren Oinarriak	6
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Elektronika Analogikoa	6
	Elektronika Digitala	6
	Erregulazio Automatikoa	6
	Robotika	6
3.	Industria Automatizazioa	6
	Industria Informatika	6
	Potentzia Elektronika	6
	Sistema Elektroniko Digitalak	6
	Teknologia Elektronikoa	6
	Tresneria Elektronikoa	6
LAUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Ekoizpenaren Antolakuntza	6
	Ingurumen Teknologia	6
4.	Kudeaketa Integratuko Sistemak	6
	Proiektuen Kudeaketa	6
	Hautazkoak	24
	Gradu Amaierako Lana	12

2.2.3. Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

		Irakasgaiak	ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu			
		Adierazpen Grafikoa	9
		Algebra	6
		Kalkulua	12
1.		Informatikaren Oinarriak	6
		Ingeniaritzako Metodo Estatistikoak	6
		Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	12
		Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak	9
BIGARREN MAILA 60 kreditu			
		Enpresen Administrazioa eta Ekonomia	6
		Automatismoak eta Kontrola	6
		Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak	9
		Fluidoek Mekanika	6
2.		Industria Elektronika	6
		Ingeniaritza Termikoa	9
		Materialen Zientzia	6
		Mekanika Aplikatua	6
		Teknologia Elektrikoaren Oinarriak	6
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu			
		Adierazpen Grafikoan Sakontzea	6
		Industria Egiturak eta Eraikuntzak	9
		Instalazioak eta Makina Hidraulikoak	6
3.		Instalazioak eta Makina Termikoak	6
		Makinen Diseinua	9
		Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna	9
		Teknologia Mekanikoa	6
		Makinen Zinematika eta Dinamika	9
LAUGARREN MAILA 60 kreditu			
		Ekoizpenaren Antolakuntza	6
		Ingurumen Teknologia	6
4.		Kudeaketa Integratuko Sistemak	6
		Proiektuen Kudeaketa	6
		Hautazkoak	24
		Gradu Amaierako Lana	12

2.2.4. Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza

Ikasgaiak		ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu		
	Kalkulia	12
	Adierazpen Grafikoa	9
	Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	12
1.	Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak	9
	Aljebra	6
	Informatikaren Oinarriak	6
	Ingeniaritzako Metodo Estatistikoak	6
BIGAREN MAILA 60 kreditu		
	Teknologia Elektrikoaren Oinarriak	9
	Mekanika Aplikatua	9
	Materialen Zientzia	6
	Industria Elektronikak	6
2.	Ingeniaritza Termikoa	6
	Automatismoak eta Kontrola	6
	Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak	6
	Fluidoaren Mekanika	6
	Enpresen Administrazioa eta Ekonomia	6
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Adierazpen Grafikoan Sakontzea	6
	Makinen Zinematika eta Dinamika	9
	Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna	9
3.	Teknologia Mekanikoa	6
	Makinen Diseinua	9
	Industria Egiturak eta Eraikuntzak	9
	Instalazio eta Makina Termikoak	6
	Instalazio eta Makina Hidraulikoak	6
LAUGARREN MAILA 60 kreditu		
	Elektronika Analogikoa	6
	Elektronika Digitala	6
	Industria Informatika	6
	Erregulazio Automatikoa	6
4.	Teknologia Elektronikoa	6
	Industria Automatizazioa	6
	Potentzia Elektronika	6
	Tresneria Elektronikoa	6
	Robotika	6
	Sistema Elektronikoko Digitalak	6
BOSGARREN MAILA 72 kreditu		
	Enpresako Egonaldia I	6
	Enpresako Egonaldia II	12
	Proiektuen Kudeaketa	6
	Ekoizpenaren Antolakuntza	6
5.	Kudeaketa Integratuko Sistemak	6
	Ingurumen Teknologiak	6
	Hautazkoak	6
	Gradu Amaierako Lana (Elektronika eta Auto. I.)	12
	Gradu Amaierako Lana (Mekanika I.)	12

2.2.5. Arkitektura Teknikoko Gradua

Irakasgaiak		ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu		
1.	Eraikuntza I	7,5
	Enpresari Aplikaturiko Ekonomia	7,5
	Adierazpen Grafikoa I	9
	Fisika Aplikatua	9
	Oinarri Matematikoak I	6
	Oinarri Matematikoak II	6
	Materialen Oinarriak I	9
	Instalazioak I	6
BIGARREN MAILA 60 kreditu		
2.	Eraikuntza II	9
	Zuzenbidea	6
	Egiturak I	6
	Adierazpen Grafikoa II	6
	Eraikuntzaren Historia	6
	Instalazioak II	6
	Prebentziorako, Segurtasunerako eta Osasunerako Sarrera eta Proiektu Teknikoak	6
	Materialak II	9
Zuinketak eta Topografia	6	
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu		
3.	Eraikuntza III	9
	Egiturak II	6
	Egiturak III	6
	Adierazpen Grafikoa III	6
	Hirigintzaren Gestioa	6
	Neurketak eta Aurrekontuak	9
	Lanen Plangintza, Antolakuntza eta Kontrola	6
	Laneko Segurtasuna eta Prebentzioa	6
Proiektu Teknikoak	6	
LAUGARREN MAILA 60 kreditu		
4.	Peritatzea eta Tasazioak	6
	Eraikuntzaren Kalitatea	6
	Eraikuntza IV	9
	Hautazkoak	27
	Graduko Amaierako Lana	12

2.2.6. Ingeniaritza Zibileko Gradua

		Irakasgaiak	ECTS
LEHENENGO MAILA 60 kreditu			
1.		Adierazpen Grafikoa I	6
		Adierazpen Grafikoa II	6
		Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	10,5
		Aljebra eta Geometria	6
		Kalkulua	12
		Informatika	6
		Geologia	7,5
		Kimika	6
BIGARREN MAILA 60 kreditu			
2.		Enpresen Antolakuntza	6
		Topografia	6
		Materialen Zientzia	6
		Egituren Teoria	12
		Lurren Ingeniaritza eta Morfologia	6
		Fluidoaren Mekanika eta Hidraulika	6
		Lurrazaleko eta Lurpeko Hidrologia	6
	Teknologia Elektrikoa	6	
	Eraikuntzako Prozedurak	6	
HIRUGARREN MAILA 60 kreditu			
3.		Egituren Teknologia I	6
		Garraioaren Plangintza, Kudeaketa eta Logistika	6
		Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza	6
		Garraio Azpiegitura	12
		Hiri Zerbitzuak	6
		Ur Horniketa eta Saneamendua	6
		Portuak eta Itsas Lanak	6
		Ingurumen Ingeniaritza	6
	Egituren Teknologia II	6	
LAUGARREN MAILA 60 kreditu			
4.		Segurtasuna eta Legedia	6
		Eraikuntza	6
		Lanen Plangintza eta Kudeaketa	6
		Ingeniaritza Zibileko Proiektuak	6
		Garraio Sareak Planifikatzeko Metodoak	6
		Hautazkoak	18
	Gradu Amaierako Lana	12	

2.2.7. Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Zibila + Arkitektura Teknikoa

		Ikasgaiak	ECTS
LEHENENGO MAILA 66 kreditu			
		Kalkulua	12
		Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak	10,5
		Eraikuntzaren Historia	6
		Algebra eta Geometria	6
1.		Informatika	6
		Adierazpen Grafikoa	6
		Geologia	7,5
		Kimika	6
		Enpresen Antolakuntza	6
BIGAREN MAILA 76,5 kreditu			
		Egituren Teoria	12
		Eraikuntza I	7,5
		Adierazpen Grafikoa I	9
		Materialen Zientzia	6
		Lurren Ingeniaritza eta Morfologia	6
2.		Fluidoaren Mekanika eta Hidraulika	6
		Eraikuntzako Prozedurak	6
		Lurrazaleko eta Lurpeko Hidrologia	6
		Topografia	6
		Instalazioak I	6
		Teknologia Elektrikoa	6
HIRUGAREN MAILA 72 kreditu			
		Garraio Azpiegitura	12
		Eraikuntza II	9
		Ur Horniketa eta Saneamendua	6
		Ingurumen Ingeniaritza	6
3.		Egituren Teknologia I	6
		Hiri Zerbitzuak	6
		Adierazpen Grafikoa II	6
		Egituren Teknologia II	6
		Materialak II	9
		Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza	6
LAUGAREN MAILA 72 kreditu			
		Garraioaren Plangintza, Kudeaketa eta Logistika	6
		Portuak eta Itsas Lanak	6
		Eraikingintza	6
		Garraio Sareak Planifikatzeko Metodoak	6
		Lanen Plangintza eta Kudeaketa	6
4.		Ingeniaritza Zibileko Proiektuak	6
		Segurtasuna eta Legedia	6
		Instalazioak II	6
		Zuzenbidea	6
		Adierazpen Grafikoa III	6
		Hirigintza Kudeaketa	6
		Proiektu Teknikoak	6
BOSGAREN MAILA 69 kreditu			
		Eraikuntza III	9
		Neurketak eta Aurrekontuak	9
		Laneko Segurtasuna eta Prebentzioa	6
5.		Eraikuntzaren Kalitatea	6
		Eraikuntza IV	9
		Peritatzea eta Tasazioak	6
		Gradu Amaierako Lana (Ingeniaritza Zibila)	12
		Gradu Amaierako Lana (Arkitektura Teknikoa)	12

3. IKASTURTEKO PROGRAMAZIOA

3.1. 2025-2026 IKASTURTEKO ESKOLA-EGUTEGIA

Iraila / Septiembre 2025

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
	1	2	3	4	5	6	7
1	8	9	10	11	12	13	14
2	15	16	17	18	19	20	21
3	22	23	24	25	26	27	28
4	29	30					

Urria / Octubre 2025

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
				1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	12
6	13	14	15	16	17	18	19
7	20	21	22	23	24	25	26
8	27	28	29	30	31		

Azaroa / Noviembre 2025

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
8	9	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15	16
10	17	18	19	20	21	22	23
11	24	25	26	27	28	29	30

Abendua / Diciembre 2025

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
	1	2	3	4	5	6	7
13	8	9	10	11	12	13	14
14	15	16	17	18	19	20	21
15	22	23	24	25	26	27	28
	29	30	31				

Urtarrila / Enero 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
				1	2	3	4
	5	6	7	8	9	10	11
	12	13	14	15	16	17	18
	19	20	21	22	23	24	25
	26	27	28	29	30	31	

Otsaila / Febrero 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
16-1	2	3	4	5	6	7	8
17-2	9	10	11	12	13	14	15
18-3	16	17	18	19	20	21	22
19-4	23	24	25	26	27	28	

Martxoia / Marzo 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
							1
20-5	2	3	4	5	6	7	8
21-6	9	10	11	12	13	14	15
22-7	16	17	18	19	20	21	22
23-8	23	24	25	26	27	28	29
24-9	30	31					

Apirila / Abril 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
				1	2	3	4
24-9	6	7	8	9	10	11	12
25-10	13	14	15	16	17	18	19
26-11	20	21	22	23	24	25	26
27-12	27	28	29	30			

Maiatza / Mayo 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
							1
27-12	2	3	4	5	6	7	8
28-13	9	10	11	12	13	14	15
29-14	16	17	18	19	20	21	22
30-15	23	24	25	26	27	28	29
	30	31					

Ekaina / Junio 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
	1	2	3	4	5	6	7
	8	9	10	11	12	13	14
	15	16	17	18	19	20	21
	22	23	24	25	26	27	28
	29	30					

Uztaila / Julio 2026

	A/L	A/M	A/X	O/J	O/V	L/S	I/D
				1	2	3	4
	6	7	8	9	10	11	12
	13	14	15	16	17	18	19
	20	21	22	23	24	25	26
	27	28	29	30	31		

Lauhilekoen hasiera/amaiera — Comienzo/Fin cuatrimestre
Oporrak - Vacaciones
Ohiko deialdia - Convocatoria ordinaria
Ezohiko deialdia - Convocatoria extraordinaria
Jai eguna - Festivo
Enpresa eguna (eskolarik gabe) - Día de la empresa (no lectivo)

3.2. ORDUTEGIAK

Ordutegiak kontsultatzeko mugikorrerako aplikazioa: GAUR app.

WebUntis web orrian ere kontsulta daitezke: hektor.webuntis.com (ikastetxearen izena: ehu)

1. Klik egin "Horarios" aukeran.
2. "Sección" menu zabalgarrian, "263" aukeratu.
3. "Grupos" menu zabalgarrian, aukeratu ikusi nahi duzun taldea. Adibidez, Grado Ing Mecánica 1º Eusk-31 (Ingeniaritza Mekanikoko Gradua 1.maila, 31 taldea Euskaraz).

4. TUTORETZA-PLANAK

4.1. BERDINEN ARTEKO TUTORETZA-PLANA

Programaren helburua Eskolara sartzen diren ikasle berrientzat goragoko mailetako ikasleek emandako laguntza eskaintzea da. Ikasle-laguntzaile hauek ikasle berria lagunduko dute ikasgaiei, irakasleei eta Eskolari buruzko informazio gehigarria izan dezaten. Ikasle berriak gai hauei buruz izan ditzakeen zalantzak argitzeko eta bere ikaskuntza bideratzeko laguntza jasoko du jada egoera bera pasa duen ikasle hauen eskutik.

Harremanetan jartzeko: gje.ikasleria.zuzorde@ehu.eus



4.2. IRAKASLE-IKASLE TUTORETZA-PLANA

Plan honen helburua ikasle berriak unibertsitate-bizitzara egokitzen laguntzea da. Programa honetan parte hartzen duten irakasleek boluntario gisa parte hartzen dute eta bakoitzak 10 ikasle inguruko taldea tutorizatuko du. Zure tutoreak hainbat arlotan lagun zaitzake: unibertsitatearen funtzionamenduari buruzko zalantzak argitzen, ikasteko modua antolatzen edota arlo akademikoan orientazioa ematen. Tutore bakoitza ikasturtean zehar bi aldiz elkartuko da berari egokitutako ikasle-taldearekin eta bilera hauetara joatea derrigorrezkoa izango da. Honetaz gain, irakasle tutorea ikasturte osoan zehar prest egongo da modu indibidualean izan ditzakezun zalantzak argitzeko.

4.3. GOI-MAILAKO ETA ERRENDIMENDU HANDIKO UNIBERTSITATE-KIROLARIENTZAKO TUTORETZA-PLANA

Plan honen helburu orokorra da UPV/EHUko goi-mailako kirolariei laguntzea, unibertsitateko ikasketak eta kirol-jarduera (entrenamenduetan, kontzentrazioetan, txapelketetan eta emaitza positiboak lortzeko beharrezkoak diren bestelako jardueretan oinarritutakoa) uztartzeko aukera izan dezaten.

Zehazkiago esanda, plan honek honako hauek lortu nahi ditu:

- Planaren nondik norakoak, ezaugarriak eta onurak helaraztea aipatutako ikasleei.
- Planean sartutako ikasle bakoitzari bere karrera akademikoan eta kirol-karreran lagunduko dion tutore bat jartzea.
- Eskakizun akademikoak eta kirolari dagozkionak ahalik eta baldintzarik onenetan bateragarri egiteko beharrezkoak diren berrantolaketa akademikoak egitea.
- Beharrezkoak diren gomendio akademikoak egitea irakasgaien sekuentziara hobeto egokitzeko, batez ere nahitaezkoak ez direnei erreparatuz.
- Ikasle horiek arlo akademikoan hobeto egokitu daitezela lortzea, egiten dituzten kirol- jarduerak unibertsitateko bizitza-garapena zaildu diezaketelako.

5. MUGIKORTASUN- PROGRAMAK

Mugikortasun-planen bitartez, unibertsitateko ikasketak lauhileko edo ikasturte baterako beste herrialde batean edo Espainiako beste zentro batean egin ditzake ikasleak. Hiru programa daude:

- Erasmus+: Europar herrialde batean (Alemania, Finlandia, Frantzia, Italia, Belgika, Hungaria...)
- AL/OD: Europatik kanpo (Txile, Mexiko, Argentina, Brasil, AEB, Puerto Rico...)
- SICUE: Espainiako beste zentro batean (Zaragoza, Bartzelona, Salamanca...)

Mugikortasun-programetan parte hartzeko baldintzak hurrengoak dira:

- Lehen maila osoa gaindituta izatea edo gehienez 1. mailako irakasgai bat gainditzeke izatea. Helmugara joan ahal izateko derrigorrezkoa izango da egonaldia baino lehen gainditzea.
- Mugikortasun programen bidez 3. eta 4. mailako irakasgaiak bakarrik egin daitezke. Titulazio bikoitzen kasuan, 4. eta 5. mailako irakasgaiak egin ahalko dira.
- Derrigorrezko irakasgai bat akordio akademikoan sartzeko, ikasleak destinoan ikasgai baliokide bat egiteko aukera alde aurretik ziurtatu behar du.

Gainera, **Erasmus eta B/N** (Beste Norakoak) programetan plaza eskatzeko, **B2 maila egiaztatu beharko da** ziurtagiri ofizialaren bidez, xede-unibertsitateko hizkuntzan edo ingelesez (First Certificate maila). Eskerak mugikortasuna egin nahi den ikasturtearen aurreko ikasturtean egin beharko dira, eta, beraz, hizkuntza-ziurtagiria alde aurretik eduki beharko da.

5.1 NAZIOARTEKO TITULAZIO BIKOITZAK

5.1.1. University of Applied Sciences Mittweida-rekin titulazio bikoitzak



GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERIA
DE GIPUZKOA



1., 2., 3. eta 4. MAILA GIEn		5. MAILA Mittweida-n
Industria Elektronik eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	+	Bachelor Ingeniería Mecatrónica
Industria Elektronik eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	+	Bachelor Ingeniería Mecánica
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	+	Bachelor Ingeniería Mecánica
Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	+	Bachelor Ingeniería Mecatrónica
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	+	Bachelor Ingeniería Eléctrica y Automatización

» Izena emateko eskatutako **aleman maila: B1**

» Alemanian **titulua lortzeko** eskatutako **aleman maila: C1**

5.1.2. FH MÜNSTER-rekin titulazio bikoitzak



GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERIA
DE GIPUZKOA



1., 2. eta 3. MAILA GIEn		4. MAILA Münster-en
Ingeniaritza Zibileko Gradua	+	Bachelor in Civil Engineering
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	+	Bachelor in Mechanical Engineering
Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	+	Bachelor in Electrical Engineering

» Izena emateko eskatutako **aleman maila: B1**

» Alemanian **titulua lortzeko** eskatutako **aleman maila B2**

5.1.3. Institut Supérieur Aquitain de Bâtiment et des Travaux Public (ISA-BTP)-arekin titulazio bikoitzak



1., 2., 3. eta 6. MAILA GIEn		4 eta 5. MAILA Anglet-en	
Arkitektura Teknikoko Gradua	+	Ingenieur du Bâtiment et des Travaux Publics	
Ingeniaritza Zibileko Gradua	+	Ingenieur du Bâtiment et des Travaux Publics	

» Izena emateko eskatutako **frantses maila: B2**

Informazio gehiago: gie.international@ehu.eus

6. ENPRESA PRAKTIKAK



Praktikak eta Enplegua jardunaldia. Inguruko enpresak etortzen dira ikasleei elkarrizketak egiteko

Enpresan praktikak eginez, hurrengo arloak garatuko dituzu:

- Graduan ikasitako ezagutzak praktikan jartzea.
- Enpresarekin lehen harreman profesionala izatea.
- Gaitasun eta trebetasun berriak lantzea.
- Laneratzea erraztea/lortzea.

Enpresan praktikak egin ahal izateko, hurrengo baldintzak bete behar dira:

- Zentroan matrikulatuta egotea.
- Gutxienez 120 ECTS lortuta izatea eskatzen da, lehenengo ikasturtea guztiz gaindituta eta bigarren ikasturtetik gehienez 12 kreditu faltan.